

Emakumeak gure herrialdeetan (Taldeka egiteko lana, eta gainontzeko taldeei lana aurkeztea)

Denbora: 50 minutu.

Gida

Helburua: Garatzeko bidean dauden zenbait herrialdetako emakumeen egoerari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzea.

Prestalana: Parte-hartzaileei eskatuko zaie presta dezatela aurkezpen bat honako informazio honekin:

- Azalpenean aztertuko den herrialdeko emakumeen egoerari buruzko ikuspegi orokor laburra, taldekoek uler dezaten zenbait herrialdetako emakumeen egoeren artean zein desberdintasun (eta berdintasun) dagoen.
 - Emakume eta gizonei buruzko informazioa, esaterako: eskolagabetasun tasak, bizi-itxaropena, egunero jaten duten kaloria kopurua, emakumeek zein neurritan esku hartzen duten erabakiak hartzeko orduan, emakumeek hezkuntza jasotzeko eta lana lortzeko duten aukera.
 - Seme-alabak haztean dauden ohiturak: mutilak ala neskak hobestea; gizonezkoek, emakumezkoek, mutilek eta neskek etxeko zereginetan dituzten rolak.
 - Nekazaritzan gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten rolak: ordaindutako lana eta ordaindu gabea, txikizkako merkataritza eta bestelako jarduera informalak. Nork eskura dezake lurra (jabegoa eta beste baliabide batzuk) eta nor da haren jabe.
 - Emakumeen aurkako bazterkeria mota batzuk (adib: ezkonsaria moduko ohiturak).
 - Herri eta politika mailako esku hartzea. Zein gunetan eta nola esku hartzen dute emakumeek eta gizonek? Ba al dago komunitatean emakume buruzagirik?
 - Emakumeengan eragin txarra duen egungo legeria.
 - Estatuak emakumeekiko eta haien eskubideekiko duen harremana.
 - Gertatu diren aldaketa sozial eta politikoak, onerako edo txarrerako, emakumeen statusa eta haiei aitortzen zaien balioa aldatu dituztenak.
- Bi edo hiru parte hartzaileri lanak aurkezteko eskatuko zaie eta aurkezpen bakoitza bukatu ondoren, galderak egiteko denbora utziko da.
- Jatorria: *Manual de Capacitación en Género de Oxfam* 1. liburukia. Lima: Oxfam eta Flora Tristán.